



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko martxoaren 28a

37. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, 5.100.000 euroko kreditu berezia ematen duena, toki entitateek eta ureztatzaileen elkarteek aparteko uholdeengatik kaltetutako titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak lehengora ditzaten. Kreditu berezi hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiliko du laguntza horiek emateko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, aurtengo otsailean Nafarroako Foru Komunitatean gertatutako uholdeak direla-eta kaltentutako laguntza neurriak ezartzen dituena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege, familia ugariei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Foru Lege, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (12. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagoien ordain morala emateko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak 2003ko otsailaren 21ean onetsi zuen proposamena. Osoko Bilkurak berretsia (13. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, 5.100.000 euroko kreditu berezia ematen duena, toki entitateek eta ureztatzaileen elkarteek aparteko uholdeengatik kaltetutako titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak lehengora ditzaten. Kreditu berezi hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiliko du laguntza horiek emateko**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Foru Legea, 5.100.000 euroko kreditu berezia ematen duena, toki entitateek eta ureztatzaileen elkarteek aparteko uholdeengatik kaltetutako titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak lehengora ditzaten. Kreditu berezi hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiliko du laguntza horiek emateko.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Legea, 5.100.000 euroko kreditu berezia ematen duena, toki entitateek eta ureztatzaileen elkarteek aparteko uholdeengatik kaltetutako titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak lehengora ditzaten. Kreditu berezi hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiliko du laguntza horiek emateko**

Nafarroan urte honetako otsaileko lehenbiziko egunetan izandako ohiz kanpoko uholde bereziek kalte handia egin dute Nafarroako toki entitateen eta ureztatzaileen elkarteeko nekazaritzako azpiegitura askotan.

Kalteak oso handiak izan dira eta toki askotan gertatu dira. Horregatik, egoki da nekazaritzako azpiegitura publikoak berehalakoan konpontzeko

dirulaguntza publikoen araubide berezi bat ezartzea, oinarrizko funtzionaltasuna ahalik eta lasterren berreskura dezaten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat prestatuko du egoera horri aurre egiteko. Dekretu horren xedea izanen da eskumena duen administrazio hidraulikoaren aurrean eraturiko edo eratze bidean dauden toki entitateei eta ureztatzaileen elkartei laguntza publikoak emateko araubide berezi bat ezartzea, 2003ko otsailean izandako ohiz kanpoko uholdeek nekazaritzarako erabiltzen dituzten azpiegitura publikoetan eragindako kalteak konpontzeko lanak susta ditzaten, larrialdiko edo presako tramitazioa erabiliz.

Horrenbestez, behar horiek betetzeko, kreditu berezia eman da, Nafarroako ogasun publikoari abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

**1. artikulua.** 5.100.000 euroko kreditu berezia ematea, toki entitateek eta ureztatzaileen elkarteek aparteko uholdeengatik kaltetutako titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak lehengora ditzaten. Kreditu berezi hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak erabiliko du laguntza horiek emateko. Kreditu berezi hori aplikatuko da 2003ra luzatutako 2002ko aurrekontuko "Ohiz kanpoko uholdeek titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturretan eragindako kalteak konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak" izeneko 720001-72120-7600-531200 kontusail berriaren kargura, kontusail hori handitu ahal izanen da.

**2. artikulua.** 1. artikuluan aipatzen den kreditu berezia aurrekontuko "Aurreko ekitaldietako superabitaren erabilera" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusaileko dirusarrerara handiagoeekin finantzatuko da.

**3. artikulua.** "Aseguririk kanpoko nekazaritza-ko egitura eta ondasunetako ustekabeko kaltea" izeneko 710002-71220-4700-719103 kontusailean aplikatzen ahalko dira 2003 aparteko uholdeen ondorioz sortutako kalteak, funtzionamendukoak zein inbertsiokoak, arintzeko ematen diren dirulaguntzak.

### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, aurtengo otsailean Nafarroako Foru Komunitatean gertatutako uholdeak direla-eta kaltentuendako laguntza neurriak ezartzen dituen**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, aurtengo otsailean Nafarroako Foru Komunitatean gertatutako uholdeak direla-eta kaltentuendako laguntza neurriak ezartzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Legea, aurtengo otsailean Nafarroako Foru Komunitatean gertatutako uholdeak direla-eta kaltentuendako laguntza neurriak ezartzen dituen**

Aurtengo otsailean izandako uholdeen ondorioz, Foru Komunitateko udalerrri batzuek jarduera ekonomikoko zenbait arlotan kalteak eta galerak jasan zituzten. Horrek behartzen gaitu pertsona eta entitate horiek jasandako kalteak arintzeko neurriak hartzera.

Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57. artikuluari jarraikiz, Nafarroako toki entitateen tributuetako zerga hobariak foru lege horretan edo beste foru lege batean baino ezin dira onartu. Halaber, ezartzen du, toki entitateen tributuei dagokienez, aipatu foru legean xedatutako zerga hobariak ez beste ezartzen dituzten foru legeek konpentsazio formulak finkatu beharko dituztela.

Foru lege honetan aurreikusi da uholdeen ondorioak jasan zituzten herri jakin batzuetako kaltetuak

salbuetsirik egonen direla 2003ko kontribuzioko kuotak ordaintzetik.

Era berean, hainbat neurri ezarri da azpiegitura eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren, horniduren eta laguntzen kontratazioa eta finantzazioa erraztearren, baldin eta uholdeek kaltetuak badira.

Otsailaren 21eko 1/2003 Errege Dekretu Legean jasotzen den bezala, kaltetutako labore eta lurraldeetan uholdeek eragindako produkzio-galerak, kalteen handia dela eta, hondamendi naturalaren pareko egoera batekin parekatu daitezke, estatuen nekazaritza sektorearentzako laguntzei buruzko Europako zuzentarauetan ezarritako terminoetan.

Europako Erkidegoaren Eraketa Itunaren 87. artikulua 2. idatz-zatiko b) letran ezarri zuen merkatu komunarekin bateragarriak direla hondamendi naturalek edo aparteko izaerako duten beste gertakari batzuek eragindako kalteak arintzeko laguntzak.

Gertakari horiek guztiz babesturik ez daudenez nekazaritza aseguru konbinatuetan, neurri aringarri egokiak ezarri beharko dira, kaltetutako lurraldeetako produkzioetan eta nekazarien errentetan sorturiko kalteen izaeraren eta eraginaren arabera.

**1. artikulua.** Foru lege honen xede da otsaileko uholdeek kaltetutako pertsona eta entitateen aldeko neurri batzuk ezartzea, euriteek kalteak eragin baitituzte Nafarroako Foru Komunitateko herri batzuetan. Nafarroako Gobernuak onetsiko duen zerrendan agertuko dira udalerrri horiek.

**2. artikulua.** 1. Aurtengo otsaileko uholdeak direla-eta kalteak jasan dituzten ondasun higiezi-

nak, aurreko artikuluan aipatu udalerritakoak izanez gero, salbuetsirik egonen dira 2003ko kontribuzioetik.

Landa-lurreko ondasunen kasuan, salbuespena aplikatuko da enpresa jardueraren bati lotutako higiezin, uzta edo aziendan kalteak gertatu badira, eta horretaz gainera, ezbeharra inolako aseguru-etxe publiko zein pribatuk babesten ez badu.

Hiri-lurreko ondasunen kasuan, salbuespena aplikatzeko frogatu beharko da bertako pertsonak edo ondasunak, guztiak edo bakar batzuk, beste etxebizitza edo lokal batzuetara eraman behar izan direla izandako kalteak konpondu arte.

Kasua bada, salbuespenak barne hartuko ditu legeak baimendutako errekaruak.

2. Aurreko ataleko salbuespena izanik 2003ko ekitaldiko erreziburen bat ordaindu duten subjektu pasiboek pagatutako zenbatekoak itzultzeko eskatzen ahalko dute.

3. Arestian xedatutakoaren ondorioz udaletan gertatzen den dirusarreraren murrizpena konpentsatzen ahalko da ondokoei jarraikiz: Toki tributuen zerga onurak onestearen ondorioz toki erakundeek eskatu dituzten konpentsazio ekonomikoen eskabi-deak tramitatzeko burutu behar den prozedura onesten duen azaroaren 9ko 325/1998 Foru Dekretuan araututako prozedura eta foru lege hau garatzeko Nafarroako Gobernuak onetsiko duen erregelamenduzko araua. 2003ra luzatutako 2002ko aurrekontuko "Toki entitateendako konpentsazioak tributuetako hobariengatik" izeneko 211000-21110-4600-912900 kontusailaren kargura ordainduko dira.

**3. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 80.1.c) artikuluan agindutako ondorioetarako, presako egoera oso larritzat hartuko da eta alde zuzeneko publikitate gabeko prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da ukitutako toki entitateen azpiegitura eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren, horniduren eta laguntzen kontratazioa egiteko, baldin eta azken kasu honetan haren balioa osotara 1.210.000 eurotik beheitikoa bada.

**4. artikulua.** Azken uholdeek eragindako kalteak direla-eta azpiegiturak eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren finantzaziorako kreditu eragiketetarako, foru lege honen 1. artikuluan aipatutako udalerriek ez dute beharko Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 130. artikuluko baimena.

**5 artikulua.** Behin frogaturik hondamendi natural bat edo aparteko gertakari bat izan dela, Nafarroako Gobernuak kalte materialen ehuneko 100erainoko laguntzak ezarri ahal izanen ditu. Kalte-ordainak, normalean, banakako onuradunei ordainduko zaizkie, eta kalte-ordain gehiegizkoak ordain ez daitezten, laguntzaren guztizko kopurutik kenduko dira, esate baterako, aseguru polizengatik jasotako zenbatekoak. Nafarroako Gobernuak, orobat, laguntzak ezarri ahal izanen ditu nekazaritza produktiorako bitartekoen suntsipenaren ondorioz gertaturiko errenta-galerak ordaintzeko, betiere kalte-ordainak gehiegizkoak izan gabe. Kalte-ordain horiek galerak produkzioaren ehuneko 20 edo 30etik gorakoak izan dituzten ustiatagietako titularrei ordainduko zaizkie, Europako Batasunak horri buruz ezarritako irizpideei jarraituz.

Artikulu honek aipatzen dituen laguntzak emateko eta ordaintzeko, aurrena Europako Batzordeak haien araubidea onetsi beharko du, nekazaritza sektorearentzako laguntza publikoei buruzko Europako arauetan ezarritakoaren arabera.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Nafarroako Gobernuak Ebroko Ur Konfederazioari eskatuko dio behar diren azterlanak egin ditzan, presako izaeraz, kaltetutako udalekin lan eginez, Nafarroan behar diren dragatze-lanak, hobekuntzak eta babe-sak eraikitze beharri buruz.

Halaber, epe laburreko jarduketak egiteko egutegi bat ezarriko du.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuaren eta Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza

eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena gaineko ponentziak egindako txostena. Txostena 2003ko martxoaren 4ko 22. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege, familia ugarietako buruzkoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Familia ugarietako buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Familia ugarietako buruzko Foru Lege proposamena**

#### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren hirugarren kapituluak gizarte eta ekonomiaren arloko politika zuzendu behar duten oinarriak aipatzen ditu, eta 39.1 artikuluan ezartzen du botere publikoek ziurtatu behar dutela familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa.

Konstituzioaren agindu horrek lotura zuzena izan behar du gure Konstituzioaren 9.2 artikuluan jasotzen denarekin; alegia, botere publikoen betebeharra dela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzeko den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezkeen, horien betetasuna galazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guztiek parte har dezaten erraztea.

Dudarik gabe, familiak bizi diren errealitate sozio-ekonomikoa nabarmen aldatu da azken urteotan, baita ase beharreko premiak eta eskura dituzten bitartekoak ere, gehien bat familia larrien kasuan.

Bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, familia ugariarentzako babestu beharra areagotzen duena, eskubide eta betebeharrak sozialaren artean egon beharreko elkarrekotasuna alegia. Bikote batek bere egoera lege ondorioetarako erregularizatzea erabakitzen denean gertatzen

den bezala, harreman horrek eskubide eta betebeharrak sozial eta pertsonalak eragiten baititu, familiek seme-alabak dituztenean zenbait betebeharrak sortzen dira horiekiko eta gizartearekiko. Halaber, elkar eraginez, betebeharrak horiek duintasunez betetzeko ahalmena emanen dieten eskubide sozial batzuk ere izan behar dituzte.

Ezinbestekoa da neurri zehatz eta puntualez haratago joan den politika orokorra egitea familiaren arloan. Ekonomiaren ikuspegi hutsetik aintzat hartu beharreko gaia da ekonomiaren hazkunde oso loturik dagoela giza kapitalarekin eta beronen prestakuntzarekin.

Giza kapitalaren ikuspuntutik hazten ez den gizarte erabateko porrotera bidean doa, baita ekonomiari dagokionez ere. Behar-beharrezkoa da horrenbestez botere publikoek babesa ematea horrelakorik gerta ez dadin aktiboki ahalegintzen direnei. Gizartearentzat onak diren jarduerak babesten baldin badira, soilik maila ekonomiari begira eta familiaren duintasuna iraintzeko asmorik gabe, halakoak diren familiak ere babestu beharko lirarteke.

Beharrezkoa da zuzenketak egitea familien zuzeneko fiskalitatean, baina berehalako jarduketan helburua izan behar da familia horientzako zerbitzuen prestazioa hobetzea, zuzeneko laguntza ekonomikoen bitartez, zerbitzu publikoak eta pribatuak ere –irakaskuntza– eskuratzeko erraztasunak emanez eta, batez ere, gastuak murrizten laguntzea.

Bereziki aurreikusi behar da, halaber, amatasunaren egoera orokorra –familiak beste seme-alaba batzuk dituen kasuan, zehazki–, eta amatasuneko bajaren aldia luzatu egin behar da hiru urtetik beherako seme-alabak edukiz gero, etxeko laguntza eman, haurtzaindegiko zerbitzuak ere eskura jarri eta abar.

Nafarroako Parlamentuak 2002an onetsi zuen familiari laguntzeko plana, familia ugarien ezauga-

ri bereziak lege bidez arautzeko premia aurreikusten duena.

Nafarroan 7.500 titulu inguru izanen dira, eta horietatik 5.347k izanen dute indarra, gutxi gorabehera; aise frogatu daiteke, ordea, famili ugarien kopurua askoz handiagoa dela Foru Komunitatean, baina familiek ez dutela arrazoi handirik ikusten titulua eskuratu edo eskatzeko, ikusirik zein prestazio gutxi dakarren.

Familia ugaria izateagatik egun eskaintzen diren prestazioak, laburbilduta, irakaskuntza, garraioa, aisialdia eta horrelakoetarako laguntzak dira.

Beste autonomia erkidegoetan deskontuak egiten dira zerbitzu publikoetan, hala nola ur zerbitzuan, hiriko autobusetan, haurtzaindegietan, kanpalekuetan, osasun establezimenduetan. Gauza bera gertatzen da Europako beste herrialde batzuetan, batez ere Suedian, Alemanian, Luxenburgon, Belgikan eta Frantzian.

Aski da aipatzea Suediako kasua, bertan familiarik gizarte babesa emateko prestazioek ehuneko 12,7 egiten baitute, eta Alemanian eta Frantzian, berriz, ehuneko 8,1 eta; Espainian, ordea, ehuneko 0,9, Eurostaten datu ofizialen arabera. Eta ez ditugu aipatuko familiek seme-alaba bat jaiotzeagatik Frantzian, Alemanian edo Belgikan jasotzen dituzten prestazioak. Zilegi da esatea Nafarroako gizartearen errenta eta ongizatearen parametroak europarrak izanik, logikoa dirudiela familia ugariak ere europarren onura berdinak izatea.

Familia ugarien kopurua Nafarroan 18.800 da, familia ugariaren txartela dutenen kopurutik -5.347- urruti samar dagoena; horrenbestez, familia ugariak 98.800 pertsona inguru hartzen dute, hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 20, gutxi gorabehera.

Horregatik guztiagatik beharrezkoa da egungo legeria, batez ere Familia ugariari buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legea, oinarritik aldatzea. Beharrezkoa da familia ugaria babesteko orain artekoa baino zuzenagoa izanen den legeria ematea. Nafarroak ezin du bazter utzi, haren eskumenen esparruan, familia ugariak behar duten babesa ematea, eta horrexegatik proposatzen da honen bidez arautzea.

Familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoren arloan beharrezkoa da botere publikoek familia ugarien babes-mailan funtsezko hobekuntzak ezartzea, laguntza eta zerbitzuak lehentasunez bideratuz zailtasun edo ahulezia larriena pairatzen duten familiei, hala nola: erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alabak, familia-unita-

tearen askitasun ekonomikorik eza, familiako edozein kideren ezgaitasun frogatua, edo familia, gizarte eta kultura esparruetan urritasunak izatea.

## I. kapitulua Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honek familia ugarietzako laguntzaren erregulazioa ezartzen du. Laguntza hori gauzatzeko diru-laguntza berariazkoak eta sostengua emanen zaie familia ugariari hainbat esparrutan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, garraioa eta tratamendu fiskala.

2. Foru lege honek ezarritako laguntzak erregelamendu bidez ezarritako per capita errentaren arabera arautuko dira.

### 2 artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetako xedapenak nafarrak diren edo Foru Komunitatean bizi diren familia guztiei aplikatuko zaizkie, baldin eta legez ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

### 3. artikulua. Familia ugariaren kontzeptua.

Familia ugaria da foru lege honetan ezarri diren baldintzak bete eta honako kide hauek dituen:

a) Aita, ama eta hiru seme-alaba edo gehiago.

b) Aita, ama eta bi seme-alaba, baldin eta horietako batek, gutxienez, legez aitorturiko ezgaitasuna edo ezintasuna badu.

c) Alargunak, legez edo egitatez banandurik daudenak edo ezkontza desegina dutenak, gehi hiru seme-alaba.

d) Aita, ama, bietako bat edo biak ezgai badira edo lanerako ezintasun iraunkor bat aitorturik badute, gehi bi seme-alaba.

e) Artikulu honetako a) eta b) letretan ezarritako seme-alaba kopurua daukaten eta zehazturiko baldintzak betetzen dituzten ama eta aita ezkongabeak.

### 4. artikulua. Ondorengo baldintzak.

Familia ugaria legez izateko, ondorengoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Ezkongabeak eta 21 urtetik beherakoak izatea edo, adinez zaharragoak izanez gero, ezgaitasun iraunkorra behar bezala egiaztatua izatea.

2. Familia unitatearekin bizitzea eta ekonomiki haren menpekoak izatea.

3. Ikasketa arauturen bat egiten ari diren eta horren frogak aurkezten dituzten 21 urtez gorakoek adin-luzapen bat izanzen dute, 25 urtera arte.

**5. artikulua.** Familia ugarien kategoriak.

1. Familia ugariak, 3 eta 4. artikuluetako baldintzak betetzen dituzten seme-alaben kopurua arabera, honako kategoria hauetan sailkatuko dira:

a) Lehen kategoria, hiru edo lau seme-alaba dituzten familiak.

b) Bigarren kategoria, bost edo sei seme-alaba dituzten familiak.

c) Hirugarren kategoria, zazpi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak.

2. Lege honen ondorioetarako, ezgaitasuna duen seme-alaba bakoitza bi balira bezala hartuko da.

**6. artikulua.** Familiaren Zuzendaritza Nagusia.

Familiaren Zuzendaritza Nagusia familia ugariarentzako zuzeneko eta zeharkako laguntzak zentralizatuko dituen organoa izanzen da, eta foru lege honetan aurreikusiriko neurriak gauzatzeko behar diren baremoak eta prozedurak ezarriko ditu.

**II. KAPITULUA**  
**Hezkuntzako neurriak**

**7. artikulua.** Babes-ekintza hezkuntza ez-unibertsitarioan.

Familia ugariarentzat baremo bereziak egonen dira hezkuntza ez-unibertsitarioko tarte guztietan, liburuetarako, eskola materialerako, jantokirako eta garraiorako laguntzak eta bekak emateko.

**8. artikulua.** Babes-ekintza unibertsitateko hezkuntzan.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz gartuko ditu unibertsitateko hezkuntzako beka berezien laguntzak familia ugariarentzat, beka bereziak izanzen baitituzte irakaskuntzako gastuei, joan-etorrietakoei eta lojamenduei aurre egiteko.

**9. artikulua.** Hobari sistema.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz gartuko du familia ugariarentzako hobari sistema bat gizarte etxe, aterpe, udal kanpaleku eta aisialdiko lokaletako tarifetan, bai eta kultur ondasunetara, kirol eta aisiako jardueretara sartzeko tarifetan ere, Nafarroako administrazio publikoetako menpekoak izan eta Foru Komunitatean badira.

**10. artikulua.** Hobariak garraio publikoan eta eskolakoan.

Garraio publikoaren eta eskolakoaren erabileran hobariak ezarriko dira Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko familia ugarietako kideen alde.

**III. KAPITULUA**  
**Gizarte eta osasun neurriak**

**11. artikulua.** Babes-ekintza.

Nafarroako Gobernuak laguntzak ezarriko ditu familia ugariarentzat, osasun tratamenduek –ortodontzia, entzumenekoak, oftalmologikoak, ortopedikoak, psikologikoak, pedagogikoak edo etxeko laguntzakoak– eragindako gastuei aurre egiteko.

**IV. KAPITULUA**  
**Etxebizitzaren arloko neurriak**

**12. artikulua.** Etxebizitzaren arloko babes jardura.

Familia ugariarentzat, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba bat ezarriko du, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat finkatutakoaren modukoa; etxebizitza horien ezaugarriak eta azalera erabilgarria –90 metro koadro baino handiagoak izan ahalko dira– zehaztuko dira bertan.

Deialdi publikoa eta baremoen aplikazioa aginduzkoa den babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioan, berariaz puntuatuko da familia ugaria izatea.

Nafarroako Gobernuak arautu egingen du familia ugarietako ondoko arloetan hobariak ematea:

a) Lehendabiziko etxebizitzaren lurralde kontribuziorako, azalera handiagoa behar dutela kontuan hartuta, premia horrek familia ugariarentzat kostua areagotzea ekarri gabe.

b) Babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak erosteko edo familiako kideen kopurua handitu delako azalera handiagoko etxebizitza batera aldatzeko maileguetako amortizazio eta interes kuotak.

c) Etxebizitzak zaharberritzeko edo/eta familia-kideen kopurua handitu delako etxebizitzaren azalera handitzeko lanak egiteko maileguetarako amortizazio eta interes kuotak.

**V. KAPITULUA**  
**Zehapen araubidea**

**13. artikulua.** Zehapen araubidea.

1. Foru lege honen onuradunek foru lege honetan xedatutakoa edozein modutan ezkutatu, faltsutu edo doluz hautsiz gero, Nafarroako



Gobernuaren zehapena jasoko du: 601,01 eurotik 6001,01 eurora bitarteko isuna edo foru lege honetan ezarritako onurez gabetzea, edo bi neurriak batera.

2. Pertsona horiek, eskubiderik izan gabe onura batzuez nahita gozatzegatik iruzurra egin badute, Nafarroako Gobernuan horretaz arduratzen den departamentuak dagokion onuraren arabera ezarritako zehapena jasoko dute, iruzurraren xede izan den zenbatekoaren halako bi eginen duen isuna alegia, salbu eta iruzurrari aplikatzekoa zaion legeriari jarraikiz zenbateko handiagoko zehapena paratzen ahal ez bada.

3. Artikulu honetan xedatutakoak ez ditu baztertuko aipatzen diren gertaerek eragin ditzaketen erantzukizun zibilak edo penalak.

**Lehenbiziko xedapen gehigarria.** Familiaren Zuzendaritza Nagusia sortzea.

Familiaren Zuzendaritza Nagusia sortzen da; Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu, erregelamendu bidez, haren eginkizunak eta mendekotasun organikoa. Familiaren Zuzendaritza Nagusiak bete beharko dituen eginkizunen artean, lehentasuna emanen zaio Nafarroako Foru Komunitateko Familiari laguntzeko departamentu arteko plana abiarazi eta koordinatzeari, bai eta foru lege honetan aurreikusiriko neurri guztiak eta ondoren erregelamenduz eginen den garapena ere.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Neurriak gartztea.

Foru lege honetan bildutako neurriak garatzeko, Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko ditu, familia ugarien seme-alaben kopurua eta per capita errentaz gain, beste inguruabar batzuk ere, hala nola familia-unitateko edozein kideren ezgaitasuna eta familia behartsuen ahulezia-egoera.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Neurri fiskalak.

Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, familia ugarietzako sostengu eta sustapenerako neurri fiskal batzuk aurreikusiko dituen familia hauen fiskalitatea hobetzeko zenbait alderditan, hala nola, familia ugarietara aplikatu beharreko zerga arintzeak, ibilgailuen gaineko zergak eta abar.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Erregelamenduen garapena.

Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamenduak emanen ditu.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorio ekonomikoak.

## **Foru Legea, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENA

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea (2002ko uztailaren 12ko 84. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) presako prozeduraz tramitatu eta ekainaren 27ko Osoko Bilkuran onetsi zen. Haren irizpenaren bozketen

ondorioz, ordea, akats bat gertatu zen xedapen gehigarri berrien eta xedapen iragankor bakarren txanda ailegatu zenean, eta bozketaren emaitzak ez du islatzen Biltzarreko talderen baten nahia.

26/2002 Foru Legearen azken testuan, argitaratutakoan, antzeman daiteke bigarren xedapen gehigarriaren eta xedapen iragankor bakarraren edukiak, eremu ez-euskalduneko ikastolen finantziazioaren ingurukoak biak, nahasgarriak direla aplikatu beharreko edukia ulertzeko orduan eta, beraz, komeni da nahi gabeko akats hori zuzentzea araua aplikatzean segurtasun juridikoa bermatzeko.

**Artikulu bakarra.** Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria indarrrik gabe gelditzen da.

**Xedapen indargabetzailea.** Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapena.** Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra foru lege honek.

## **Foru Legea, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Legea, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa**

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, 44.1 eta 2 artikuluan Foru Komunitateari eskumen osoa eman zion lurralde antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren arloan, bai eta

erkidegoan interesa eta eragina duten herrilaren arloan ere.

Ezgaitasun fisiko iraunkor edo aldi baterakoa duten pertsonak administrazio publikoek ematen dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskuratu ahal izatea, erdietsi beharreko helburua ez ezik, gaur egungo gizartean errealitatea izan behar duen herritarren eskubidea ere bada.

Nafarroan hogeita hamaika mila ezgaitu baino gehiago bizi dira, hau da, populazioaren ehuneko 6, eta kezka ikusten dute gizartean haiekiko dauden gabeziak zuzendu beharrean, lege indardunak behin eta berriz bete gabe gelditzen direla. Kontuen Ganberak berak halaxe adierazi du ezgaituei buruz 1995-1999 eperako eginiko txostenean, legeak ez baitira betetzen ez ezgaitu fisikoentzako lanpostuak erreserbatu beharri dagokionez ezta eraikin berrietara, aparkalekuetara eta abarretara iristeko erraztasuna bezalako gaiei dagokienez ere.

Berriki, Nafarroako biztanleen bizi baldintzei buruz gure erkidegoko Estatistika Institutuak 2001ean egindako inkesta batek agerian utzi du biztanleak ez daudela batere ados oztopo arkitektonikoen arazoa oraindik gainditu ez izanarekin.

Urte asko iragan dira oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko foru legea onetsi zenetik, eta denbora horretan Nafarroako gizartea Europako erregio garatuenetara hurbiltzen eta arlo askotan haiekin bateratzen joan da. Horrexegatik iruditzen zaigu ongizate orokorraren maila berriak islatu behar direla gure erkidegoko herritar guztien irisgarritasun baldintzetan. Foru lege indarduna onetsi zenetik iragandako denbora, zenbait arlotan hura nahikoa zehaztugabea izatea eta jarraipen eta kontrolerako mekanismorik eza hura behin baino gehiagotan ez betetzeko arrazoiak izan dira.

Gurea bezalako gizarte batean, zeinetan bizitzeko itxaropena gero eta handiagoa den, batetik eta, bestetik, mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, –dela istripu baten ondorioz dela gaixotasun batengatik– neurri batean galdu duten pertsonen kopurua ere handitzen doan etengabe, irisgarritasunaren baldintzak hobetu beharrak arduradun publikoen kezka iraunkorra izan beharko luke.

Proposamen honen asmoa ez da egun indarra duen foru legearen aldaketa orokorra egitea –nahiz eta hala egin beharko den lehenbailehen eta zerikusia duten eragileen partaidetzarekin–, baizik eta gure iritziz premiazko esku-hartzea eskatzen duten puntu zehatz batzuei heltzea bizkitartean.

Horretarako onesten da foru lege proposamen hau, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea, 10, 12 eta 14. artikuluetan eta lehen xedapen gehigarrian aldatzekoa.

**1. artikulua.** Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen 10. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honela geldituko da:

“3. Erregelamendu bidez ezarriko da erreserbatu beharreko tokien kopurua, mugikortasun urritua duten pertsonak garraiatu behar dituzten ibilgailuen kasurako, bai eta horien diseinuan eta exekuzioan kontuan hartu beharko diren baldintzak eta ezaugarriak ere, bai ibilgailu arinetarako planeatu, proiektatu edo egiten diren aparkalekuetan, bai egun daudenetan. Edozein kasutan, toki horien kopurua ez da izanen kopuru osoaren ehuneko 6tik beherakoa.”

**2. artikulua.** Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen 12. artikuluari 7. idatz-zatia, berria, gehitzea. Honela geldituko da:

“7. Etxebizitzetarako eraikin berriek bere irisgarritasuna bermatu egin beharko dute, irizpide hauen arabera:

a) Etxebizitza kolektibo guztietan aurreikusitako egin beharko da tokia, gutxienez, eraikinaren bizian zehar igogailua paratu ahal izateko aurrerago.

b) Eraikinaren solairuen kopurua beheko plan-ta gehi beste bi baino handiagoa denean, eraikin publiko edo etxebizitza kolektiboko eraikin horietan garatzen den komunikazio bertikaletako gune bakoitzean, gutxienez igogailu bat proiektatu eta eginen da.”

**3. artikulua.** Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen 14. artikuluari 3. idatz-zatia, berria, gehitzea. Honela geldituko da:

“3. Etxebizitzetarako orubeak adjudikatzeko lehiaketetan puntuatu egiten da, baldintzen pleguaren bitartez, etxebizitzaren diseinuak aintzat hartzea ezagaitasun fisiko larria duen pertsona baten beharretara aise egokitzeko aukera. Halaber, dagokien lehiaketetan puntuak emanen zaizkie beheko solairuko etxebizitzak lehentasunez horrelako ezgaitasunak dituzten pertsonentzat egiten dituzten proposamenei.

Etxebizitzetarako eraikinetan, behekoa gehi beste bi solairu izan eta beheko solairuetan sustapen publikoko etxebizitzak egiteko aukera badute, etxebizitza horiek, lehentasunez, ezagaitasun fisiko larria duten pertsonentzat izanen dira.”

**4. artikulua.** Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria aldatzekoa. Honela geldituko da:

“Lehendabizikoa. 1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuko departamentuek, zeinek bere eskumenen esparruan, txosten bana prestatuko dute, haien menpeko eraikin, zerbitzu eta instalazioen egokitzapen planak noraino bete diren ebaluatze-ko oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Legea betetzeari begira.

2. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuko departamentuek jarduketa plan bat aurkeztuko dute Foru Biltzarrean, bertan finkatuz herritar guztien irisgarritasun eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta sei hilabeteko epean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Biltzarrak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2003ko otsailaren 10ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak 2003ko otsailaren 21ean onetsi zuen proposamena**

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak 2003ko otsailaren 21ean onetsi zuen proposamena berrestea.

«1. Nafarroako Parlamentuak babestu eta izenpetzen du “36ko gerraren ondorioz fusilatutako herritar nafarrak omentzearen eta haiei dagokien ordain morala ematearen aldeko adierazpena”, “1936ko kolpe militarren ondorioz fusilatu eta desagerturikoen senitartekoen elkarreak” proposatutakoa. Hauxe da haren edukia:

“Gauza jakina dugu ezen Nafarroan, alegia Errepublika demokratikoa eraitsi zuen kolpe militarra prestatu zen lekuetako batean, 1936an borroka militarrik ez zela izan, eta halere hiru mila lagun inguru erail zituzten, Errepublikaren alde zeudela uste izateagatik edo zituzten ideengatik.

Hilketa haiek matxinatuek eurek hartarako propio eraturiko taldeek egin zituzten, gerrako junten aginduetara, inolako legalitate izpirik edota formalismorik gabe. Egintza kriminal horiek Eliza Katolikoaren hierarkiaren oniritziak gauzatu ziren, publikoki “Altxamenduaren” aldeko jarrera adierazi baitzuen, eta oniritziak ez ezik zuzenean esku hartuz ere bai zenbaitetan.

Hildakoen ahaideek ere, etxeko baten galera tragikoaz gain, gerrak ekarritako injustizia eta diktaduraren ondorio latzak jasan behar izan zituzten: oinazea eta ezinegon larriak desagertuengatik, kartzelaratzek eta erbesteratzek sakabanatutako familiak, ondorio psikikoak, horien zama burutu ezinik osasuna galtzeraino edo hiltzeraino heldu baitzen pertsona asko, diru

eskasia (pertsona askori beren ondasunak ebatsi zizkieten), laido publikoek eragindako eguneroko lastura (ilea moztu eta paseoan ibilarazi...), bidegabekeria eta irainak (diktaduraren instantzia ofizial eta komunikabide guztietatik heldutakoak, edo batzuetan elizetako pulpituetatik, eta kalean ere jarraipena zutenak, entitate horien babesean), euskararen eta euskal kulturaren aurkako jazarpen bortitza, galarazpen ofiziala, bazterketa soziala eta erabateko babes gabezia.

Franco diktadorearen heriotzaren ondorean, maiz hildakoen ahaideek eta lagunak atera zituzten hilotzak ezpondetatik, soroetatik edo paretetatik. Dena eguargiz egin zuten, hurbilenganako maitasunez eta duintasunez, baina aitorten ofizialik gabe.

Diktadorearekin edo kolpe militarrekin lotura izandako Nafarroako erakundeetatik bakar batek ere ez ditu sekula onartu egintza larri haiek, ez eta jendaurrean barkamenik eskatu ere. Eliza Katolikoaren hierarkiak, berriz, ez du orain arte horrelakorik egin.

Munduko bazter askotan, diktadurak edo krimen politikoak jositako zorigaitzoko garaia amaitutakoan, ‘egiaren aldeko batzordeak’ sortu ohi dira; erakunde gorenetan gune publikoak ireki ohi dira, eztabaidatzeko, gertatutakoa argitzeko eta, finean, katarsi bat gertatzeko, horrek egia bere tokian jartzen, pertsonen justiziazko ordaina ematen eta iraganeko zauriak ixten lagun dezan. Emaitzak, gogorra eta latza izanik ere, aukera ematen du abiapuntu egokiagoa ezartzeko, gaia ezkutatzek eta gizartean –gizarte osoan, bai biktimengan bai errepresoreengan– horren eragin sakona izandako egitate haiek gertatu izan ez balira bezala jokatzeak ekarri dezakeena baino egokiagoa behintzat.

Gure lur maite honetan, isiltasunezko lainoak estalirik daude gertaera haiek, Nafarroako milaka herritarrengan ondorio zuzenak izan zituzten arren; herritar horiek, intimitatean baina beldurrez, belaunaldiz belaunaldi transmititu dute tragedia lazgarri hura.

Ez da ona nafar gizartea burua makurturik ibiltzea oraindaino. Tragedia haren zorra bere buruarekin kitatu ahal du eta kitatu beharra du, eta, hartara, justizia falta hura ase. Berandu heldu den omenaldi honen helburua justizia egitea da; baliagarria izanen da bizikidetasun zuzenagoan eta ideia guztien errespetuan oinarritzen den gizarte baten eta demokrazia sakonago baten berri emateko. Esandakoaren ondorio gisa, Nafarroako erakundeek baliabideak jarri beharko dituzte askatasunaren aurkako elementu sinbolikoak, denok gainditu nahi dugun iragan horren adierazle ere direnak, desagerrarazteko.

Hortik aitzina, bai egungo herritarrok bai gero-ko belaunaldietakoek ere aurre egin ahal izanen diogu etorkizunaren erronkari, inork jendaurrean aipatzen ez duen laido misteriotsurik gabe, eta jakinen dugu zein diren memoria historikotik ikasi beharrekoak. Horietako bat nabarmendu nahi dugu bereziki: inongo ideiak ez ditu justifikatzen neurri horretako basakeriak, pertsonari gizatasuna erazten baitiote, heriotzaraino erazi ere, haren ahaide maitatuena oinazez itoazten baitituzte, horien egileak degradazio makurrenera eramaten baitituzte, eta hurrengo belaunaldiei oinaze eta herra gaizto eta sakonez beteriko legatua uzten baitiete oinordetzan. Beraz, orduko izugarrikeriak berriz ez ditzala inork pairatu, sekula ere ez.

Honenbestez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du, gizon eta emakume haiek zitalki erail zituztela, epaiketarik gabe eta inolako justifikaziorik gabe; aitzitik ere, haien biziarekin askatasuna, aurrerabidea eta justizia soziala defendatu zituztela. Horrexegatik, batere zalantzarik gabe aldarri-

katu nahi dugu gizon-emakume haiek geure herrialdean guztion onerako lanik bikainenak egin dituzten nafarren artean daudela. Askatasunaren eta justizia sozialaren alde hil ziren, eta Nafarroako Parlamentuan bihotz-bihotzez egin nahi diegu omenaldi eta gorazarrea.”

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du inork ez duela zilegi, iraganean gertatu zen bezala, indarkeria erabiltzea bere sinismen politikoak inposatzeko eta herritar guztien askatasunaren eta duintasunaren aurkako erregimen totalitarioak ezartzeko; jokabide horrek, izan ere, gure gizarte demokratikoaren gaitzespena eta errefusatzea merezi du.

3. 1936ko gerra zibilean eraildako pertsonen aldeko monumentu-eskultura bat eraikitzeke Sar-tagudako Udalak hartu duen ekimena babesten du Nafarroako Parlamentuak, eta adierazten du monumentua inauguratzeko ekitaldian ordezkari-tza bat izan nahi duela; halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du monumentu horren erai-kuntza diruz lagundu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen ditu behar diren gauza eta giza baliabideekin koordinatu eta lagun dezan gerra zibileko biktimak, beren ideia politikoak defendatzeagatik erail eta identifikatu gabe hobi komunetan lurperatu zituztenak, hobitik atera, identifikatu eta lurperatzeko lanak errazten.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die beren artxibo historikoetan (zibil, erlijioso eta militarretan) urte haietako jaiotza- edo heriotza-agiriei buruzko dokumentazioa gordea duten gizarteko erakundeei hura iritzi publikoaren esku jar dezaten, 36an fusilatutakoen gorpuak non dauden jakitea errazte aldera.»

Iruñean, 2003ko martxoaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena**

### *ZIOEN AZALPENA*

Martxoaren 26ko 1/2001 Lege Organikoaren bidez, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 29 eta 30. artikulua aldatu ziren. 29. artikulua aldatzean, Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzeko prozedura aldatu zen, bai eta ordezkio prozedura automatikoa desagertu ere.

Horrenbestez, beharrezkoa da Parlamentuko Erregelamenduko 171. artikulua aldatzeko proposamena egitea, Foru Hobetzeko 29. artikulua testu berriari egokitzeko, eta 98.2a ere, 171.5 artikuluaekin bat etor dadin.

98. artikulua –bozketa motak arautzen ditu–, 2. idatz-zatian ezartzen duenez, lehendakaria berresteko bozketa agerikoa eta deiaren bidezkoa izanen da, baina 171.5ean isilpekoa eta boto txartelen bidezkoa izanen dela ezartzen da. Kontraesan hori zuzendu egin behar da, 98. artikulutik kenduz inbestidurari buruzko aipamena; izan ere, inbestidura isilpeko bozketaren bidez egin ohi da Nafarroako Parlamentuan.

**1. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“171. artikulua

Proposatutako hautagai berresteko bilkurako deia hiru egun lehenagotik egin beharko da, gutxienez, eta hurrengo arauen arabera egingo da bilkura:

1go. Parlamentuko lehendakariak Biltzarrari jakinaraziko dio Gobernuko lehendakaritzarako hautagai-proposamena. Horrela hasiko da bilkura.

2garren. Ondoren, eratu nahi duen gobernuaren egitarau politikoa azalduko du proposatutako hautagaiak, denbora mugarik gabe, eta Biltzarren konfiantza eskatuko du.

3garren. Lehendakaritzak erabakitako etenaldiaren ondoren, hala eskatzen duen parlamentuko talde bakoitzeko ordezkari banak esku hartuko du hogeita hamar minutuz. Askotariko Parlamentuko Taldea osatzen dutenei dagokien denbora euren artean hainbanatuko da, eta esku hartzeko denbora elkarri utz diezaiokete. Talde parlamentarioak esku hartzeko hurrenkera taldekide kopuruaren arabera egingo da, handienetik hasita txikieneraino, eta Askotariko Taldearekin bukatuz.

4garren. Eskatu adina aldiz erabili ahal izango du hitza proposatutako hautagaiak. Esku-hartzailereren bati bakarka erantzuten badio, ihardesteko eskubidea izango du horrek. Era berean, hautagaiak Parlamentuko taldeen ordezkarietara eta Askotariko Parlamentuko Taldea osatzen dutenei baten erantzuten badie, ihardesteko eskubidea izango dute horiek. Lehendakaritzak erabakiko du ihardesteko txandaren denboren iraupena.

5garren. Lehendakaritzak erabakitako orduan egingo da bozketa. Bozketa isilpekoa izango da eta boto txartelekin egingo, Biltzarreko Erregelamenduaren 100. artikuluan ezarritakoaren arabe-

ra. Proposatutako hautagaiak parlamentukideen erabateko gehiengoaren botoa bereganatzen badu bozketan, konfiantza eman zaiola ulertuko da. Lortu ezean, beste bozketa bati ekinen zaio hogeita lau orduren buruan eta hautagaiari konfiantza emantzat hartuko da bigarren bozketan gehiengo soila lortzen badu.

6garren. Gehiengo soila lortua dela ulertuko da aldeko botoen kopurua aurkakoena baino handiagoa denean; abstentzioak, boto zuriak edo balio-gabeak ez dira zenbatuko ondorio horretarako. Gehiengo hori ere lortzen ez bada, hautagaia arbuatutzat hartu eta hurrenez hurreneko proposamenak tramitatuko dira arestian aurreikusitako era berean.

7garren. Lehenbiziko bozketatik hogeita hamar egun natural iragan eta hautagairik hautatu ez bada, Parlamentua desegin eta berehala hauteskundeak deituko dira. Parlamentu berriaren agin-

taldiak, hala ere, lehengoaren agintaldia bukatuko zen arte iraunen du.

8garren. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, hautagaiari konfiantza ematen bazaio, Parlamentuko lehendakariak erregeari jakinaraziko dio, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuako lehendakari izendatua izan dadin.”

**2. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 98. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“2. Zentsura mozioaren eta konfiantza eskaeraren bozketa beti izango dira agerikoak eta deia- ren bidezkoak.”

**Azken xedapen bakarra.** Erregelamenduaren aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat ..... 40,27 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	Navas de Tolosa, 1
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	31002 IRUÑA